

GAZTEEN DANTZA TOPAKETA 2026

AZKEN TXOSTENA

Lakuntza · 2026ko ekainaren 26, 27 eta 28a

Euskal Dantzarien Biltzarra

2026ko GDTk dantzariak beraiek aukeratutako bi gaitan sakondu du: giroa eta errepertorioa. Esperientziak, beharrak eta proposamenak jaso ditu dantza taldeen barruan haien jarraipena indartzeko.

Aurkibidea

1. Laburpen exekutiboa
2. Abiapuntua: 2023an hasitako prozesu bat
3. 2026ko GDTaren oinarrizko datuak
4. Lakuntzan garatutako metodologia
5. Giroa ardatzaren emaitzak
6. Errepertorioa ardatzaren emaitzak
7. Zeharkako ikaskuntzak
8. Sortutako materialak
9. Emaizen itzulera eta prozesuaren jarraipena
10. Ondorioa

1. Laburpen exekutiboa

2026ko Gazteen Dantza Topaketa Lakuntzan egin zen 2026ko ekainaren 26tik 28ra. 16 eta 25 urte bitarteko 72 dantzari hartu zuten parte, bizkaitarrak nagusiki, Nafarroa eta Arabako ordezkariarekin.

Laugarren edizio hau Euskal Dantzarien Biltzarrak 2023an hasitako prozesuaren parte da, dantza taldeen belaunaldi erreleboa aztertzeko eta euskal dantzetan dantzari gazteen jarraipena indartzeko.

Topaketaren aurretik zuzenean galdetu zitzairen dantzari gehien kezkatzen dituzten gaiei buruz. Jasotako erantzunen artean bi gai nabarmentzen dira: taldearen giroa eta erreperitorioa. 2026ko edizioko hausnarketa-lana aukeraketa horretatik abiatuta antolatu zen.

Garatutako jardueri esker, bi ardatzekin lotutako esperientziak, beharrak eta proposamenak jaso ahal izan ziren. Ondorioek erakusten dute giroak, harremanek, harrerak, komunikazioak eta taldeko kide sentitzeko aukerak eragina dutela jarraipenean. Erreperitorioaren aniztasunak, dantza berrien ikaskuntzak, testuingurua ezagutzeak eta beste talde batzuekin trukeak egiteak motibazioan eragin zuzena dutela ere erakusten dute.

Landutako egoera eta proposamen batzuetan oinarrituta, "**praktika onen**" lehen fitxa-sorta prestatu zen. Fitxa horiek GDT 2026k sortutako materialen parte dira, eta taldeek aztertu eta egokitu ditzaketen praktika onen adibideak eskaintzen dituzte.

Proiektuaren hurrengo fasean, emaitzak partekatuko dira dantzariekin, dantza-taldeekin, ordezkariarekin eta talde horietako antolaketa, zein erabaki-prozesuetan parte hartzen duten pertsonekin. Informazio-truke horri esker, emaitzak errealitate ezberdinekin alderatu ahal izango dira, eta 2027ko GDTrako prozesuaren jarraitutasuna zehaztu ahal izango da.

2. Abiapuntua: 2023an hasitako prozesu bat

GDTa diagnostiko, hausnarketa, ekintza eta jarraipeneko prozesu progresibo gisa garatu da. Edizio bakoitza aurreko esperientzietatik ikasitakoan oinarritu da, eta galdera berriak txertatu ditu.

Araia 2023: topaketarako eta entzuteko gunea irekitzen

Lehenengo edizioak lurralde ezberdinetako dantzariak bildu zituen. Belaunaldi-berritze faltari buruzko hausnarketa partekatua bultzatu zuen. Araiak kideen arteko topaketa baten balioa erakutsi zuen: dantza antzeko moduan bizi duten beste gazte batzuk ezagutzeak indartu egin zuen kidetasun-sentimendua eta komunitate zabalago baten parte izatearen kontzientzia. Aldi berean, nabarmena izan zen dantzari izateari lotutako harrotasuna.

Areatza 2024: beharrak eta proposamenak lehenestea

Bigarren edizioari esker, gure gazteen kezkak eta proposamenak hainbat ildotan egituratu ahal izan ziren: erreperitorioa, kide izatea, ikusgarritasuna, jardueren

erakargarritasuna, gazteen parte-hartzea, jarraitutasuna, itzulera, trukeak eta mutilen presentzia. Lan horretatik abiatuta, taldeentzako ekintza posibleak planteatu ziren, eta dantza-talde pilotuen bidea ireki zen.

Segura 2025: diagnostikoa kontrastatzea eta gogoeta ekintzara bideratzea

Hirugarren edizioak aurreko ondorioak, AMIA analisia eta dantza-talde pilotuekin egindako lana izan zituen oinarri. Segurak sakon aztertu zituen partekatutako erronkak, eta prozesu osoan behin eta berriz agertzen den ondorio bat indartu zuen: belaunaldi-erreleboa dantzen transmisioaren mende dagoela, baina baita komunitatearen, harremanen, motibazioaren, parte-hartzearen eta kide-tasun-sentimenduaren mende ere.

Lakuntza 2026: dantzariak aukeratutako gaietan sakontzea

Laugarren edizioaren ardatza dantzariak beren lehentasuna zela adierazi zutena izan zen: “giroa eta erreperitorioa”. Lakuntzako Topaketa gai horietan sakontzeko antolatu zen, esperientziak eta proposamenak biltzeko eta, horren ondorioz sortutako ikaskuntzak sistematizatzen laguntzeko, materialak sortzeko.

Giroa

Giroa ardatzak taldeko giroa izan zuen hizpide: harremanak, harrera, eguneroko elkarrekintza, komunikazioa, kide-tasun-sentimendua eta pertsona batek taldean eroso sentitzea errazten edo oztopatzen duten faktoreak.

Erreperitorioa

Erreperitorioaren ardatzak taldeek lantzen dituzten dantzak, horien aniztasuna, erreperitorio berriak ikastea, dantza bakoitzaren testuinguruak ulertzea eta erreperitorioaren eta motibazioaren arteko harremana hartu zituen aztergai.

3. 2026ko GDTaren oinarrizko datuak

Elementua	Datua
Lekua	Lakuntza (Nafarroa)
Datak	2026ko ekainaren 26tik 28ra
Izena emandako dantzariak	85
Bertaratutako dantzariak	72
Bertaratuen adina	16-25 urte
Jatorria	Nagusiki Bizkaikoak, Nafarroako eta Arabako ordezkari-talarekin.
Genero-profila	58 neska eta 14 mutil

4. Lakuntzan garatutako metodologia

Topaketak elkarbizitza, dantza, tailer praktikoak eta hausnarketarako espazioak uztartu zituen. Jarduera bakoitzak funtzio desberdin bat bete zuen asteburu osoan.

- Hasierako galdetegia: dantzarien kezkak ezagutzeko aukera eman zuen.
- Hasierako ekintza eta horma-irudiko galdera: parte-hartzea sustatu zuten, eta gazte bat talde batean eroso sentitzeko eta bertan jarraitzeko zer den lagungarri jakiteko lehen ekarpenak bildu zituzten.
- Ostiraleko hausnarketa dinamika: taldeen errealitateari buruzko lan partekatuari ekin zion.
- Larunbateko txokoak: eduki praktiko eta metodologikoak lantzeko aukera eman zuten, besteak beste, materiala (zapia eta abarkak nola jarri, Lanestosako haga-zintak), dantza-entsegu baten metodologia eta praktika onak.
- Dantza eta gizarte-jarduerak: horiek dantzarien arteko harremanak eta Topaketaren esperientzia komunitarioa indartu zituzten.
- Igandeko azken jarduera: parte-hartzaileek beren taldeen errealitatearekin lotutako ideiak bildu zituen.
- Azken galdetegia: esperientzia ebaluatzea eta etorkizuneko edizioak hobetzeko informazioa biltzea ahalbidetu zuen.
- EDBren ondorengo lana: emaitzak antolatu, txostena idatzi eta prozesutik eratorritako materialak prestatu zituen.

5. Giroa ardatzaren emaitzak

Jasotako ekarpenek taldearen giroa dantzarien esperientziaren erdigunean dagoela erakusten dute. Giroa jarraitutasunarekin lotzen da, entsegua nola bizi den, harremanak nola eraikitzen diren eta pertsona bakoitzak taldearen barruan leku bat duela zenbateraino sentitzen duen baldintzatzen duelako.

5.1. Harremanak eta kidetasun-sentimendua

Harreman onak, adiskidetasuna eta kidetasun-sentimendua funtsezko elementu gisa ageri dira jarraitutasuna bermatzeko. Taldeko kide sentitzea entseguetara eta emanaldietara joatea baino haratago doa; izan ere, norbera aintzat hartua sentitzea, esperientziak partekatzea eta komunitate batean parte hartzea dakar berekin.

5.2. Harrera eta integrazioa

Pertsona berriak sartzeko eta adin-taldeen arteko aldaketek arreta eskatzen dute. Harrera egiteak, erreferenteak egoteak eta adin desberdinetako pertsonekin harremanak izateko aukerak integrazioa erraztu eta taldetik kanpo egotearen sentsazioa murriztu dezakete.

5.3. Komunikazioa eta tentsioak kudeatzea

Ekarpenek erakusten dute garrantzitsua dela arazoei buruz hitz egin ahal izatea handitu aurretik. Giroa zaintzeak berekin dakar ondorenak adierazteko, egoerak argitzeko eta bizikidetzako gutxienekoak adosteko espazio eta modu egokiak izatea.

5.4. Parte hartzea

Iritziak emateko eta aldaketak proposatzeko aukerak eragina du taldearekiko harremanean. Gazteen parte-hartzeak balioa hartzen du ekarpenei erantzuna ematen zaienean eta argi dagoenean zer erabaki parteka daitezkeen eta nola emango zaion jarraipena planteatutakoari.

5.5. Ikaskuntza nagusia

Giro ona talde askoren indarra da, baina lana ere eskatzen du. Harremanak, harrera, komunikazioa eta parte-hartzea gazteen leialtasuna bultzatzen duten baldintzen artean daude.

6. Errepertorioa ardatzaren emaitzak

Errepertorioa kultur transmisioari eta motibazioari lotuta dago. Dantzariak ikastea, beste leku batzuetako dantzak ezagutzea eta dantzatzen dutena hobeto ulertzea baloratzen dute.

6.1. Aniztasuna eta ikaskuntza

Ekarpenek dantza berriak ikasteko eta aniztasun handiagoa izateko interesa jasotzen dute. Errepertorio txiki bat etengabe errepikatzeak motibazioari eragin diezaioke, batez ere ikaskuntza-helburu berririk hautematen ez denean.

6.2. Beste errepertorio batzuk ezagutzea

Euskal Herriko beste herri eta lurralde batzuetako dantzak ezagutzeko interesa dago. Beste talde batzuekin egindako trukeek, bisitek eta tailerrek errepertorioa zabaltzeko eta, aldi berean, dantzarien arteko harreman berriak sortzeko aukera ematen dute.

6.3. Dantzen testuingurua eta zentzua

Ikaskuntza sakonagoa da dantzen jatorria, funtzioa, musika eta testuingurua ezagutzen direnean. Informazio hori lagungarria da ulertzeko errepertorioa ez dela urratsen segida bat, baizik eta tradizio bizi eta askotariko baten zati bat.

6.4. Plangintza eta motibazioa

Errepertorioa berritzea helburu onargarrien bidez planteatu daiteke: dantzaren bat sartzea, pieza bat berreskuratzea, tailer bat antolatzea edo truke bat adostea. Kontua ez da errepertorioa metatzea, baizik eta ikaskuntza bizirik mantentzea eta taldeari erronka egokiak eskaintzea.

6.5. Ikaskuntza nagusia

Errepertorioak motibazioan eta taldearekiko loturan eragiten du. Aniztasunak, testuinguruaren ezagutzak eta beste talde batzuekiko kontaktuak transmisioa eta jarraitzeko gogoia indartu ditzakete.

7. Zeharkako ikaskuntzak

Giroarekin eta errepertorioarekin zuzenean lotutako emaitzez gain, proiektuari eta dantza taldeei eragiten dieten hainbat ikaskuntza identifikatzeko aukera ematen du Topaketak.

7.1. Belaunaldi-berritzea komunitateari dagokion kontua da.

Jarraitutasuna dantzen transmisioaren eta talde barruko esperientziaren kalitatearen bidez eraikitzen da. Harremanek, motibazioak, parte-hartzeak, ikaskuntzak eta kidesun-sentimenduak elkarri eragiten diote.

7.2. Bizikidetzak metodologiaren parte da

Jarduera informalek, tailerrek eta bizikidetzak hainbat talde eta lurraldetako dantzarien arteko harremanak sortzea ahalbidetzen dute. GDTak dantzari izatearen harrotasuna eta komunitate zabalago bateko kide izatearen sentimendua indartzeko espazio gisa ere funtzionatzen du.

7.3. Jarraitutasunak erabakiak hartzen dituztenengana iristea eskatzen du

Landutako gai askok taldeen eguneroko funtzionamenduari eragiten diote: harremanak, harrera, errepertorioa, antolaketa, metodologia, parte-hartzea eta trantsizioak. Horregatik, emaitzak batzarretara, begiraleetara, arduradunengana eta bestelako erabakiguneetara iritsi behar dira, dantzarietaz gain.

8. Sortutako materialak

GDT 2026k hainbat material prestatu ditu prozesua dokumentatzeko eta emaitzak partekatzea errazteko:

- 2026ko edizioaren azken txostena.
- Laburpen laburra dantza taldeentzat.
- Topaketan landutako egoeretatik eta proposamenetatik abiatuta landutako praktika onen zortzi fitxako lehen sorta.

Praktika onak fitxetan taldeen behar zehatzekin lotutako adibideak jasotzen dira. Taldeek dagoeneko garatzen dituzten eta beste talde batzuentzat baliagarriak izan daitezkeen esperientziak ezagutzea ere aurreikusten da.

Praktika ona	Zer lantzen duen	Taldearentzako balioa
Errepertorioa berritu (Renovación del repertorio)	Errepertorioa planifikatuta berritzea.	Inertzia hausten du, motibatu egiten du eta bizirik mantentzen du transmisioa.
Batzar irekiak (Reuniones abiertas)	Entzutea eta erabakietan parte hartzea.	Dantzarien ahotsa jarraipeneko proposamen bihurtzen du.
Gaubela: saltoa erraztu (Gaubela: facilitando el salto)	Tarteko taldeetatik helduen talderako trantsizioa.	Erreferenteak sortzen ditu eta bat-bateko jauziaren sentsazioa murritzten du.
Dantza-irteerak (Salidas de danza)	Beste herri batzuetan edo beste talde batzuekin dantzak ikastea.	Errepertorioa, harremanak eta testuinguruaren ezagutza zabaltzen ditu.
Kanpoan egon, taldean jarraitu (Estar fuera, seguir en el talde)	Norbaitek ikasten duenean edo kanpoan bizi denean loturari eustea.	“Dena edo ezer ez” logika saihesten du eta itzulera errazten du.
Ateak ireki (Puertas abiertas)	Pertsona berriak hartzea eta erakartzea.	Lehen urratsa errazten du eta taldea barrutik erakusten du.
Urteko sormen-pieza laburra (Pieza anual de creación propia)	Sorkuntza puntuala urrats ezagunekin eta egungo musikarekin.	Errutina hausten du errepertorio tradizionala baztertu gabe.
Giroa zaindu, tentsioak bideratu (Cuidar el ambiente, gestionar tensiones)	Giroa zaintzea eta tentsioak kudeatzea.	Arazoak detektatzen eta bizikidetzako gutxienekoak adosten laguntzen du.

9. Emaitzen itzulera eta prozesuaren jarraipena

Txostenak amaitu ondoren, emaitzak itzultzeko eta kontrastatzeko faseari ekiten zaio. Helburua da emaitzak behar bezala jakinaraztea eta taldeen errealitatearekin alderatu ahal izatea.

- Bidaltzea informazioa parte hartzen duten biltzarrei, dantza-taldeei eta dantzari, eta argitaratzea webgunean.
- Aurkeztea GDTaren ibilbidea, metodologia eta emaitzak zuzendaritza-batzordeko kideak, irakasleak eta talde-buruak bertan direla.
- Ordezkaritzetako batzar nagusiak aurkezpen-gune gisa aprobetxatzea, taldeen eta EDBren arteko harreman zuzeneko kanal bat mantenduz.
- EDE proiektuaren azken saioarekin batera, 2026ko GDTaren emaitzei buruzko informazio saio berezia antolatzea.
- Praktika onak fitxak eta sortutako gainerako materialak ezagutaraztea.

- Ondoren, taldeak gonbidatzea beste taldeentzat baliagarriak izan daitezkeen esperientziak partekatzera.
- Erabili jasotako iritziak, analisi konparatiboa eta bildutako esperientziak GDT 2027ra begirako hurrengo lan-zikloa zehazteko.

Ondorengo ekintzei buruzko informazio operatiboa bereizita jakinaraziko da; horrela, mezu bakoitzak helburu argia izango du, eta ez du informazio gehiegirik izango.

10. Ondorioa

2026ko Gazteen Dantza Topaketak 2023an hasitako prozesuarekin jarraitu du, eta dantzariak eurek hautatutako bi lehentasunetan jarri du arreta: giroa eta errepertorioa.

Ondorioek erakusten dute dantzari gazteen jarraipena talde barruko harremanen, harreraren, komunikazioaren, parte-hartzearen eta ikaskuntzaren mende dagoela. Era berean, errepertorioak motibazioan eragina duela erakusten dute, baldin eta aniztasuna, testuingurua eta truke-aukerak eskaintzen baditu.

Lakuntzaren ondorengo zeregin nagusia Topaketaren ikuspegi bateratua taldeei eta erabakiak hartzen dituzten pertsonei itzultzea da. Txostenek, materialek eta praktika onak fitxek ikasitakoa ordenatzeko eta partekatzeko aukera ematen dute; hurrengo zikloa errealitate desberdinekiko kontrastetik eta egiten den jarraipenetik abiatuta erabaki beharko da.

Gazteen Dantza Topaketa:

diagnostikoa → hausnarketa → ekintza → jarraipena